

BOTA DINK!

Umorea garrantzitsua da bizitzan, eta bertsolaritzan ere bai. Zenbat ateraldi, zenbat pasadizo dituzten bertsolariek, kontatzen hasiz gero... "Bertsolari" izatea, lagunartean, horixe da: gutxien uste denean, umore kolpea. Espero ez den erantzuna. Kideak esanari errimaz erantzutea. Egoera beste begi batzuekin ikustea.

Goza dezagun, bada, bertsolarien ateraldi eta pasadizoekin. Historiako eta egungo bertsolari batzuk ezagutuko ditugu hala. Unai Iturriagak egin ditu komikiak!

Bukatzeko, ikasgelan nork gure pasadizoa kontatuko dugu: bizitzan gertatu zaigun umorezko egoera bitxi bat, ateraldi bat, behin egin genuen zelebrequeria hura... Aiton-amonei ere eska genieziaieke euren garaiko pasadizoak kontatzeko.

Gehien gustatu zaizkigunak kopletan kontatu genitzake, edo esketxak egin eta beste ikasgelen aurrean antzeztu.

Gauza ederra da umorea!



INDALEZIO BIZKARRONDO,
"BILINTX"...




...Bertso-jartzaile aparta
izateaz gainera,
burusoila zen.



AIZAK,
INDALEZIO!



HIRE BURUAK
ILARGIA ZIRUDIK.



ETA HIREAK BERRIZ
KANPOSANTUA!



ZERGATIK
KANPOSANTUA?!



(H)ILEZ BETETA
DAGOELAKO!



BILINTX!!



zugaz/
art

BIOGRAFIA

- Donostian jaio eta bizi izan zen.
 - Aitona (amaren aita) andaluziarra zuen, Ayamontekoa (Huelva).
 - Haurra zelarik, jolasean zebilela erori eta aurpegia itxuraldatua geratu zitzaion; hortik datorkio "Moko" izengoitia.
 - Festetan zezenak harrapatuta, larri egon zen behin.
 - Bertsopaper ugari idatzi zituen. Maitasuna eta sentimenduak bertsotan adierazten nabarmendu izan da.
 - Ogibidez, Antzoki Zaharrearantz kontserje izan zen.
 - Liberala zen. Bigarren Gerra Karlistan soldadu izan zen.
- San Sebastian egunean (urtarrilaren 20an) bere logelan zegoela, karlistek jaurtitako granada bat sartu eta hankak txikitu zizkion. Zauri haien ondorioz hil zen.



**Indalecio
Bizkarrondo
Ureña "Bilintx"**
(Donostia, 1831-1876)

Bota
dinki!

BEHIN BATEAN LOIOLAN



Doinua:
**Behin batean Loiolan
Zortziko txikia**


Behin batean Loiolan,
erromeria zan.
Hantxe ikusi nuen
neskatxa bat plazan
txoria baino ere
arinago dantzan.
Huraxe bai polita,
han politik ba zan!

Esan nion desio
senti nuen gisan,
harekin hizketa bat
nahi nuela izan.
Erantzun zidan ezik
atsegin har nezan
adituko zidala
zer nahi nion esan.


Arkitu ginenean
inor gabe jiran,
koloreak gorritu
arazi zizkidan.
Kontatuko dizuet
guztia segidan,
zer esan nion eta
zer erantzun zidan.

Dama polita zara
polita guztiz, ai!
baina hala ere zaude
oraindik ezkongai.
Ezkon gaitezen biok!
Esan zaidazu bai!
-Ni zurekin ezkondu?
Ni zurekin? Jai, jai!


Pello Errotak bazuen asto bat
Arroma izenekoa. Bere astoan
egoskorra zen Arroma.



Baita Pellorekin fidela ere.
Hitzen beharrik gabe ulertzen
zuten elkar.



ZER HABIL,
GAZTE,
ARRANTZAN?



BAI, ZEOZER
HARRAPATZEKO
ZALANTZAN!




Ez ziren asko Pello Errotari
zirtzo erantzutera ausartzen
zirenak. Jakina, Pellori ez
zion graziazarik egin mukizu
hark, braust!, jaurtitakoak.



PUTZURA ERORIKO
AHAL HAIZ HURRENGO
BALANTZAN!



Arromari ere ez.



Pellok barre,
eta Arromak arrantzza,
halaxe argitu zen
zalantza.



zugaz/
art

BIOGRAFIA

- Asteasuko **Goikoerrotan** jaio zen.
- **Bertsolari familia** dira Goikoerrotakoak. Pelloren anaia Joan Kruz, arreba Sabina, Mikel Anton eta Mikaela seme-alabak...
- **Apustu giroa** (idi probak, sega apustuak...) ziren nagusi Asteasun bere denboran. Eta **miseria**; txanpon askorik gabe bizitza aurrera ateratzeko garaiak.
- Bizibidez **errotaria** bazen ere, **bertsoa lanbide osagarri** gisa erabili zuen lehen bertsolarietakoa izan zen.
- Dei asko izaten zuen: herriz herri, festaz festa, txapelketa, desafioak...

Hain ospetsua egin zen, non 1895. urtean joan-etorri osoa ordainduta **Argentinara** eraman zuten hango euskaldunei kantatzera.

Gizon txikia, bizkor eta bizia, dena ziria eta eztena.



**Pedro Jose
Elizegi Maiz
"Pello Errota"**
(Asteasu, 1840 - 1919)

Bota
dinki!

TXIRRITAREN ALKANDORA



Doinua:

**Mando baten gainean /
Zortziko txikia**

PELLOREN ASTOAK

Pello astoarekin zihoala, norbaitek burlan bota zion:

Begi bat itsua da,
hanka bat **ausiya**,
ilundu ezkerotik
ezin **ikusia**,
pausajia ere
ez dauka **biziya**,
bere modukua da
horren **nagusiya**.

Eta Pellok erantzun:

Anega t'erdi arto
dauzka **bizkarrian**,
ni bezela dijua
pauso **azkarrian**,
mantentzen errexia da:
jaten du **larrian**,
horretxek serbitzen nau
bere **baldarrian**.

Pellok urtean bitan astoari kafea ematen zion
(Eguberritan eta San Pedrotan), esanaz:

-To, har zak; guk ere hartu diagu-ta!



Doinua:

**Ari naizela ari naizela
Zortziko handia**

Pello Errota

Ari naizela, ari naizela,
hor ikusten det **Txirrita**,
eta zein ez da harrituko, gaur,
gizon hori **ikusita**,
dudarik gabe egina dio
andregaiari **bisita**,
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora **jantzita!**

Txirrita

Hauxe da lotsa eman didana
gizon artera **sartuta**,
edozer gauza esaten degu
ardo-tantokin **poztuta**,
bi alkandora ekarri ditut
bat erantzia **ahaztuta**,
Pellok bi nola jantziko ditu
bat besterikan ez **du-ta!**




Katalintxo baserriak
mahatsa zuen etxe
aurreko horman.

Mahatsa helduta ikusita,
gizon bati ixilka sartu
eta jateko gogoia sortu
zitzaion..



BIOGRAFIA

- Asteasuko **Goikoerrotan** jaio zen. Oiartzunen bizi izan zen, **Katalintxo** baserrian.
- **Bertsolari familia** zen berea. Pello Errota bertsolari ezaguna anaia zuen. Beste anaia batek ere, Joan Kruzek, egiten zuen bertsotan, bilobek ere bai...
- Sabinak ere dena **bertsotan erantzuten** omen zuen. Ezagutu zutenek zioten gizona izan balitz bertsolaria izango zela.
- Sabinaren **bertsorik ez zen gorde**; ateraldiak soilik jaso dira. Bere argazkirik ere ez dugu.



**Sabina
Elizegi Maiz**
(Asteasu 1842-1932 Oiartzun)

ELIZARA BIDEAN

84 urteak beteta mezara bidean zihoala, bizikleta batek abiadan jo eta lurrera bota zuen. Sabina lurrean aieneka, esku-muturra hautsita, eta bizikletakoak ihes!

Bidean zetorren batek galdetu zion:

- Zer egin zaituzte, Sabina?
 - Zer egin nauten? Por dios! Jo ta bota, ta adios!
- Eskumuturra hautsia izanagatik, mezara joan zen.

ERANTZUNA BETI PRONTO

Azala laztua beharko zuen garai hartan.

Mutil gazteek bazekiten dena bertsotan erantzuten zuela eta, xaxatzeagatik, honela esaten zioten:

- Aio atsua!
- Ni ez nauk atsua, demonio faltsua!

Elegantea zen Plazida.



Gainera, alabak beroki dotore bat oparitu zion.



Bere larruzko poltsarekin primeran luzitzen zuen berokia.



Behin, hala esan omen zuen Teodosionekeo nagusiak.



BAINA PEZETA BAT ERE EZ DIK ERAMANGO BARRENEAN!



AIZAK! ZENBAITEK DIRUZ BETETA BAINO...



...NIK HUTSIK HOBETO LUZITZEN DIAT!



AI, PINTTO!... EZ HAIZELA HI HANKA-HUTSIK DABILEN BAKARRA!



zugaz/art

BIOGRAFIA

- Zizurkilgo **Errekalde** baserrian jaioa.
- **Bertsolariak** zituen **aitona** (Errekalde Zaharra), **aita** (Jose Bernardo) eta **lehengusua** (Pedro Maria Otaño bertsolari ezaguna).
- Plazidak **etxean aitarekin bertsotan** asko egiten zuen. Txirritari ere erantzun zion bertsotan, soroan lanean ari zela. Etorri handiko emakumea zen, erantzun azkarrak ematen trebea.
- 1950ean, Pedro Mari Otañori Zizurkilen egindako omenaldian abestu zuen **84 urterekin**. **Lehendabiziko aldia** zen eremu **publikoan** abesten zuena.



**Plazida
Otaño
Odriozola**
(Zizurkil, 1867-1954)

Bota
dinki!

EZKONTZEKO ASMOTAN



Doinua:
Ezagutu zuenak
Zortziko txikia

18 urte zituela, etxeko sukaldean, adinez aurrera zihoala esan omen zion aitari eta, ezkontzeko asmoa zuenez, dotea prestatzen joateko.

Dotea ezkonberriari gurasoek ematen zioten ondasuna zen.

Joxe Bernardo aitak bertso hau kantatu omen zion:

Ezkondut behar denala,
ho(r)i den **baloria!**
Hemezortzi urte den
hire **edadia.**
Pikara, gaizki hazi,
lotsarik **gabia,**
hik aberastuko naun,
lehen banaiz **pobria.**


Eta alaba Plazidak erantzun:

Aita, zahartu ta gero
garai hobia **ez da,**
neska gaztiak ere
badu bere **kezka.**
Ilea zurituri
nobiorik **ez-ta,**
orduaz alperrik da
soinua ta **festa.**



Zuen inguruan ezagutu al duzue etxean bertsotan egiten duen amonarik?
Galdetu dezagun etxean!

Behin Xalbador eritu
eta medikuak erregimena
jarri zion.



Ostatu batean bazkaltzen
ari zirela, Mattinek
galdetu zion:



ZERTAN HAIZ
OSASUNEAN?

MEDIKUAK ZER
ERRAN DAUK?




ERRAN NAIK
SENDATUKO
NAIZELA...



...BAINA LUZE.




TO! XANTZA DUK!



zugaz/
art

HIK BEDEREN
BADAKIK EZ HAIZELA
SEGITUAN HILEN.

?!



KAR! KAR! KAR!...
EGIN DEZAGUN TOPA,
MATTIN!



HIRE
OSAGARRIAREN
ALDE!



BIOGRAFIA

- Urepeleko **Xalbador baserrian** jaioa.
- Aitaren ondoan egin zen **artzain**.
- **14 urterako** bere gain zituen lan ardura guztiak. Sasoi hartan artzain batek **Txirritaren bertsoak** ekartzen zizkion Gipuzkoatik; haietatik ikasi zuen bertsotan.
- **Mattin eta Xalbador bikote** sonatua egin zen plazaz plaza. Mattin pikaroa zen, adar-jolea; Xalbador, aldiz, sakona eta sentibera.
- Bertsotan **Amerikan eta Parisen** ere aritu zen.
- **Odolaren mintzoa** liburua idatzi zuen eta bere bizitza eta bertsoak jaso zituen bertan.
- **1976an omenaldia** egin zioten Urepelen; emozioak gailenduta, ondoezak jo eta **egun berean hil zen**.
- Xalbadorren omenez, **Xabier Lete abeslariak** *Xalbadorren heriotzean* kantu ezaguna sortu zuen.



**Ferdinand
Aire Etxart
"Xalbador"**

(Urepele 1920-1976)

Bota
dink!

TXISTUAK

1967ko Txapelketa Nagusia zen. Buruz burukora zein bi bertsolari pasako ziren epaia eman zuten mikrofonotik: Uztapide eta Xalbador.

Publikoa txistuka hasi zen, burrunban. Bost minutu eta erdiko txistualdi gogorra eta luzea.

Uztapide eta Xalbador, mikrofonoaren aurrean isilik.

Eta Xalbadorrek bere hitzak, publikoari:

Anai-arrebok, ez otoi pentsa
neu're gustura **nagonik**,
poz gehiago izango nuen
albotik beha **egonik**,
zuek ez bazerate kontentu
errua ez daukat, ez, **nik**,
txistuak jo dituzue, baina
maite zaituztet **oraindik**.

Publikoa txaloka jarri zuen, zutik.



Doinua:

**Igande arrats eztiño batez
Zortziko handia**



Eiffelen (Paris) lau bertsolari, 1961ean

Hamasei urte zituen
Maialen Lujanbiok.
Anjelmari Peñagarikanorekin
bertso-bazkari bat zuen
Auskalotegin eta gizon bat
hurbildu zitzaien.



HI!, PEÑA,
MAIALEN HORI,
ZER DUK, "NESKA"
ALA "ANDREA"?



ZOTZ!
ZERGATIK EZ DIT
NEURI GALDETU ZER
NAIZEN?!



ZER OTE ZEN
HARENTZAT "NESKA"
ALA "ANDREA"
IZATEA?...



...NEURI GALDETU
IZAN BALIT...

NESKA?!



...ERANTZUNGO NION...

ANDREA?!



BERTSOLARIA
NAIZELA!



BEG, 2009ko Txapelketa Nagusiaren finala.

GOGORATZEN NAIZ,
LEHENGO AMONEN
ZAPI GAINEKO GOBARAZ,
GOGORATZEN NAIZ
LEHENGO AMONAZ
GAURKO AMAZ TA ALABAZ...



NESKATOTATIK
EZAGUTZEN DUT,
LAGUNAK GARA...

IXO!



BERTSOLARIA
ETA EMAKUMEA.



BIOGRAFIA

- Umetan **kirolzalea**, palan eta eskubaloian ibilia.
 - Bertsotan **ikastolako bertso-eskolan** hasi zen.
 - **15 urterekin** ekin zion **plazaz-plaza**ko ibiliari, gazte belaunaldia lagun; **oholtzan emakume bakarretakoa** zen.
 - **Ofizioz bertsolaria**. Unibertsitatean Arte Ederrak ikasia.
 - 2009an **Txapelketa Nagusiko txapelduna** izan zen.
- Historian lehen emakumea** da txapel hori lortu duena.
Bertsolari bideurratzailea, ibilbidez eta bertsokeraz.



**Maialen
Lujanbio
Zugasti**
(Hernani, 1976)

Bota
dink!

SUA

2009ko Txapelketa Nagusian, hitza eman zioten 9 puntuko bertsoa kantatzeko: SUA.



Doinua:
Betroiarena A
Neurri berezia

Hura asmakizuna
homo **habilisena!**
Bazun intentzioa
bazuen **sena!**
Bi harrik elkar jota
txispa bat **aurrena**
asmakizun haundina
mendeetan **barrena.**
Sua da **problema**
zenbait **basorena**
edo jaki **dena**
berotzen **duena**
eta bi begiradek
sortzen **dutena.** (bis)

TXAPELDUNAREN AGURRA


2009ko Txapelketa Nagusian, Joxe Agirre bertsolariak jantzi zion txapela.
Zapia eta txapela buruan kantatu zuen agurra.



Doinua:
Eguzkiak urtzen du goian B
Neurri berezia

Gogoratzen naiz lehengo amonen
zapi gaineko **gobaraz**
gogoratzen naiz lehengo amonaz
gaurko amaz ta **alabaz.**
Joxei ta zuei mila zorion
miresmenaren **zirrarak**
ta amaituko dut txapel zati bat
zuek guztiontzat **lagaz.**
Gure bidea ez da errex
bete legez, juizioz, **trabaz...**
Euskal Herriko lau ertzetara
itzuliko gara **gabaz**
eta hemen bildu dan indarrak
grinaz eta poz **taupadaz**
herri hau sortzen segi dezagun
euskaratik ta **euskaraz.**

NIRE PASADIZOA



Pasarte umoretsu hau aukeratu dut ikasgelan kontatzeko.

A series of horizontal dotted lines for writing.